

## BEZEROAREKIKO HARREMANA

Bezeroak publizitatea bitartez erakarriko ditugu gero deskontuak egingo dizkiegu klase bat baino gehiago hartzen badituzte. Deskontuak modu erraz batean kudeatzeko, gazte guztiek dituzten “Gazte txartela” familian urgariaren txartelaren bidez egingo ditugu, modu erraz eta eroso batean egiteko. Beste aldetik, sare sozialen bidez ezagutarazi egingo gara, zentroaren informazio berezia igotzen, deskontu bereziak, zozketak...



### LEHEN EGUNA

Gure lokalaren lehen egunean tailer bereziak antolatuko ditugu gure klaseak nola izango diren erakusteko, horretarako gure sare-sozialean argitaratuko dugu, jendeari erakartzeko eta motibatzen.

**Marrazketa** tailerran, ikasleek marrazki libre bat egingo dute eta arte estilo desberdinak ezagutu ahal izango dituzte haien interesa eta arte estilo zein den lortzeko.

**Dantza** tailerran, irakasleak dantza baten koreografia irakatsiko die eta beste dantza moten aurkezpenak erakutsiko die.


**Robotika** tailerran, irakaslea lego mindstormren bidez kotxe bat muntatuko du, gero programazioa nola erabiltzen den erakutsiko die.

Gure etorkizun proiektuak jakinarazi egingo diegu eta gurasoei haien umeen progresua erakutsiko diegu.

### EGINGO DIREN JARDUERAK

Ikasleen lanak indartzeko txangoak egingo ditugu, hala nola, arte museoetara **marrazketa** klasekoek haien ezagutza handitzeko. Horretaz aparte lehiaketetan parte hartzeko aukera emango diegu, boluntario izango dena.

**Dantza** klasekoek aldiz, dantza lehiaketetan parte hartuko dituzte Europa osotik, beste dantza eskolen aurka, eta ospakizunetan modu libre bat bezala



dantza egiteko baita ere. Dantza motak ondo ezagutzeko, dantza arloan diren irakasle ezagunak gonbidatuko ditugu, gure ikasleei klase bat emateko eta beste irakasle desberdin batekin dantza egiteko aukera izateko, modu horretan dantza mota guztietara moldatzeko, horren ondoren ikasleak galderak egin ahal izango dituzte irakasle ezagunari, nolabait jakiteko nolakoa den kanpoan dantza mundua.

**Robotika** klaserako, klasekideen arteko lehiaketak egingo dira, adibidez roboten borrokkak edo lasterketak, ere noizbehinka proiektu bereziak egingo dira, non gelakide guztiek batera parte hartuko duten helburu berbera batekin, txangoak egingo ditugu ere, teknologiako ekitaldietara, erakusketara...

